



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

MUSIKA BEHAKETA HAUR HEZKUNTZAN: ERREKALDE HERRI ESKOLA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Barrena Bengoa, Irati.

ZUZENDARIA: Barrena De la Rua, Nerea.

2019

LABURPENA

[EUS] Lan honetan, Oñatiko Errekalde Herri eskolako Haur Hezkuntzako 5 urteko gelan egindako musika saioen behaketa aurkezten da. Lanaren helburua, musikako ikasgela batean haurrek jasotzen duten musika hezkuntza nolakoa den behatzea da. Horretarako, behaketa sistemako baten bitartez jasotako informazioa biltzen da eta ondoren musikaren inguruko teoria ezberdinek esaten dutenarekin eta behaketaren bidez ikusi denarekin ondorio batzuk atera dira. Behaketa hau egin ondoren baieztatu ahal izan da musika jardunak haurren gaitasunetan duen eragina.

Hitz gakoak: Musika hezkuntza, Behaketa sistematikoa, Musika edukiak, Haur Hezkuntza, Musika esperimendatzea

[ES] En este trabajo se presenta la observación de unas sesiones de música realizadas en la escuela de Errekalde Herri eskola de Oñati en el aula de 5 años. El objetivo principal ha sido observar cómo es la educación musical que reciben los niños. Para ello, se ha recopilado la información mediante la observación sistemática y teniendo en cuenta las diferentes teorías musicales, se han deducido algunas conclusiones del comportamiento observado. Después de realizar esta observación se constata la influencia que tiene la actividad musical en el desarrollo del niño.

Palabras claves: Educación musical, Observación sistemática, Contenidos musicales, Educación Infantil, Experimentar la música

[EN] In this project, observations of music sessions carried out with 5-year-old children from the Errekalde Herri eskola school of Oñati are presented. The main objective of the project was the analysis of the musical education children receive. In order to conduct this study, information gathered by the systematic observation was used, taking into account the different existing music theories. This way, conclusions of the behaviour of the children were obtained so as to observe the influence of the musical activity on children's development.

Key words: Music education, Systematic observation, Contents of the music, Children's education, Experimenting the music

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	4
2.	GAIAREN JUSTIFIKAZIOA	5
3.	MARKO TEORIKOA	6
3.1	GAIAREN GARRANTZIA.....	6
3.2	ARLOAREN EGOERA	9
3.3	MUSIKA EDUKIAK ANTOLATZEKO HAINBAT PROPOSAMEN	10
4.	HELBURUAK	13
5.	METODOA: LANA EGITEKO URRATSAK	14
6.	EMAITZAK.....	16
6.1	BEHAKETA AURRERA ERAMAN DEN ESKOLAREN TESTUINGURUA.....	16
6.2	JARDUEREN DESKRIBAPENA	17
6.3	JARDUEREN ANALISIA ETA BALORAZIOA	32
7.	ONDORIOAK	36
8.	MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	37
8.	ERREFERENTZIAK.....	38
9.	ERANSKINAK.....	41

1. SARRERA

Behin baino gehiagotan aipatu izan da musikak duen eragina pertsonengan eta beraien garapenean, horregatik hezkuntzan txertatzea ezinbestekotzat jo da. Haur hezkuntzan musikak izan dezakeen eraginaz jabetuta egoera hori nolakoa den aztertzeko behaketa lan bat egin da.

Gradu Amaierako lan honetan Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasgela bateko musika saioen behaketa eta horren analisisia egin da.

Hasteko, musika gaiaren inguruan sakondu da eta horren inguruan aditu ezberdinek esaten dutenaren inguruan hitz egiten da. Horretaz gain, musika hezkuntzak 0-6 urte bitartean duen garrantzia eta haurren garapenean duen eragina azaltzen dira.

Jarraituz, lan honen helburuak zeintzuk diren aipatu eta azalduko dira eta ondoren, lan hau aurrera eramateko erabili den metodologia azalduko da, hau da, lana aurrera eramateko eman diren urratsak zeintzuk izan diren.

Helburuak eta metodologia aipatu ostean, emaitzetan zentratuko gara eta bertan, 5 urteko ikasgela bateko musikako klase bateko behaketa nola egin den eta bertan jaso diren emaitzak zeintzuk izan diren azalduko dira bukaeran balorazio bat eginez.

Bestalde, ondorioetan, lan hau egin eta gero bidean zehar ikasi dugunaren inguruan hausnarketa bat egingo eta amaitzeko, lanean zehar egon diren mugak eta hobetzeko proposamenak jasoko dira bai nire buruarekiko eta baita egindako behaketarekiko ere.

Sarrerari bukaera emateko, eskerrak eman nahiko nizkioke Errekalde Herri Eskolari eta Aimarri musika saio hauen behaketa egiteko aukera emategatik. Bestalde, nire familia eta lagunak eskertu nahiko nituzke beti izan ditudalako alboan laguntzeko prest.

Azkenik, Gradu Amaierako Lanaren tutorea, Nerea Barrena eskertu nahiko nuke hilabete hauetan zehar eman didan laguntzagarik eta arretagarik.

2. GAIAREN JUSTIFIKAZIOA

Gratu Amaierako lan hau, Haur Hezkuntzan musika saioak nola garatzen diren jakiteko egin da. Hau da, behaketa lan hau gaur egun ikasgela batean musika hezkuntza nolakoa den aztertzeke egin dugu.

Ikasturte honetan, praktikak egin behar nituen ikastetxera joan nintzenean praktikak egitea tokatu zitzaidan gelan, hau da, 5 urteko gelan musika saioak jasotzen zituztela esan zidaten. Hori horrela zela ikusita eta egoera berezia zela jabetuta, izan ere, Haur Hezkuntzan ez dira leku denetan musika saioak ematen, nire gradu amaierako lanean klase horren behaketa bat egitea proposatu nuen, musika irakaslearen baimenarekin.

Bestalde, Haur Hezkuntzan musika hezkuntza garatzea oso garrantzitsua dela uste dugu, izan ere, haurrei musikarekiko esperientzia eta bizipen berriak eskaini behar zaizkie beraien garapenerako funtsezkoa delako musika.

Horrez gain, practicum III-a beste gai baten inguruan egin nuen eta aurretik karreran zehar musika eta musika hezkuntzaren inguruko espezializaziorik jaso ez arren aukera oso ona iruditu zitzaidan lan hau aurrera eramateko.

Jaiotzen garen momentutik musika inguruan daukagu, jostailu musikaletan, ikasgelan eta etxean entzuten ditugun abestietan, telebistan ikusten ditugun marrazki bizi-dunetan... musikaz inguratuta gaude. Hori horrela izanik, musika hezkuntza egoki bat jasotzea oso garrantzitsua eta baliagarria izan daiteke haurraren garapenerako.

0-6 urte bitarteko etapa, momentu garrantzitsua da haurrei musikaren inguruan esperientzia, bizipen ezberdinak eskaintzeko eta ondo pasatzen musika hezkuntza egoki bat garatu eta ikasteko, horregatik, irakasleen formakuntza eta hauek erabiltzen dituzten material eta baliabideak oso garrantzitsuak dira prozesu horretan.

Musikak, haurren garapenean onura handiak dakartza eta eskola eta familia egoera horretaz baliatu behar dira haurrei musikarekin esperientzia ezberdinak eskaintzeko eta lantzen dituzten jardueren bidez garapena egoki bat lortzeko.

Horregatik guztiagatik, eskola bateko bost urteko ikasgela batean klase bateko musika saioen behaketa egitea erabaki da. Horren ondoren, musika hezkuntzaren inguruko balorazio bat egiteko eta gaur egun dauden mugak zeintzuk diren aztertu eta hobekuntza proposamenak egiteko.

3. MARKO TEORIKOA

3.1 GAIAREN GARRANTZIA

Musika lantzeak garrantzia handia dauka, bizitzako edozein arlotan eta baita hezkuntzan ere. Zer da musika? Musika hitza azaltzeko orduan, hainbat definizio aurki ditzakegu: Pascualek dio musika soinuak denboran konbinatzearen arteko artea dela. (Pascual, 2006). Bestalde, Rousseauk 1768 urtean idatzi zuen musika hiztegian, musika soinuak belarrira modu atseginean konbinatzeko arte bezala definitzen du (Rousseau, 2007).

Musikaren bitartez mundua ezagutzen da eta prozesu horretan sentimenduen adierazpena, garapena eta ideien transmisioa ematen da. Hau da, musika adierazpen eta komunikazioa bide bat da (Hormigos eta Cabello, 2004).

Fubineren hitzetan, “La música presenta mil engranajes de carácter social, se inserta profundamente en la colectividad humana, recibe múltiples estímulos ambientales y crea, a su vez, nuevas relaciones entre los hombres” (Fubini, 2001, orr. 164).

Hainbat adituren ustez, musika hezkuntza oso garrantzitsua da eta ahalik eta lehen irakatsi behar zaie hurrei (Pascual, 2006). Hezkuntza musikal goiztiarrak etekin izugarriak ditu, adimenaren garapenean eta horretaz gain, trebetasunen eta gaitasunen garapenean funtsezkoa da. Izan ere, koordinaziorako, sentsibilitaterako, talde-lanerako, ahalmenerako eta kontzentraziorako beharrezkoa da (Akoschky, Alsina, Diaz eta Giraldez, 2008).

Guzti honek, musikaren hainbat dimentsio ezberdin erakusten digu, besteak beste, artearena, hizkuntzarena, zientziarena, esperientziarena...

Aipatu beharra dago, musikak haurren garapenean duen eragina handia dela. Garapen hori txiki-txikitatik ematea oso garrantzitsua da, izan ere haurri sormena indartzen, irudimena garatzen eta arreta eta kontzentrazioa hobetzen laguntzen dio (Sarget, 2003).

Gainera, Barbarrojak (2009) aipatzen duen moduan, hezkuntza musikalak eragin zuzena du garapen kognitiboa, sentsoriala, motorra eta korporalean. Hau da, etapa honetan irakaskuntza globala ezinbestekoa da arreta memoria, afektibitatea eta gorputz adierazpena garatzeko.

Gaiarekin jarraituz, Sargetek dio musikak gaitasun kognitiboak, psikomotorrak eta emozionalak sustatzen dituela eta horrek ondorioak dituela sentimenduen eta pertsonaren garapenean (Sarget, 2003). Ildo beretik, Bernalen iritziz, garapen kognitiboa eta afektiboaren elkarrekiko harremana oso garrantzitsua da, beraz, hurrei esperientzia musikala eskaintzea, haien sentimenduak adierazteko eta sormena garatzeko lagungarria izan daiteke (Bernal, 2005). Eta honetaz gain, musikak munduan dauden objektuak ezagutzeko bide bat izateaz gain, haurren ahozko hizkuntza lantzeko baliabide bat izan daiteke. (Barbarroja, 2009).

Jarraitzeko, Bernalen esanetan, hurrei txiki-txikitatik esperientzia musikalak eskaini behar zaizkie, musikarekiko zaletasuna pizteko eta soinu anitzak ezagutzeko hau da, haurrek musika egin eta parte-hartu behar dute (Bernal, 2005).

Haurraren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuari dagokionez esan, musika prozesu horren helburuak eta edukiak lortzeko eta jarduerak burutzeko oinarri garrantzitsua izango dela (Pascual, 2006).

Gaitasun musikala haurra sabelean dagoenean garatzen hasten da. Entzumen apartua haurdunaldiaren 6-7 hilabeteen artean funtzionatzen hasten da eta entzuketa horren bitartez haurra memoria garatzen hasten da.

Musika bizitzan zehar funtsezkoa den osagai bat da, izan ere, musikak, pertsonen arteko harremanetan sendoa sortzen du. Horregatik, guraso eta irakasleen papera oso garrantzitsua da musika transmititzerako eta irakasteko orduan. Beraiek izango dira eta haurrari musikarekin konektatzen lagunduko diotenak eta hezkuntza musikala garatuko diotenak (Akoschky, Alsina, Diaz eta Giraldez, 2008).

Hori dela eta, Pascualek, hezkuntza musikala gizakiaren eskubide bat dela dio eta honen irakaskuntza guztion esku egon behar dela bai guraso eta baita irakasle ere. Izan ere, irakaskuntza musikalak Haur Hezkuntzan garrantzi handia du eta oinarri zorrotzak izan behar ditu. Beraz, etapa honetako irakasleen formakuntza funtsezkoa izan behar da (Pascual, 2006).

Aurrerago aipatu den bezala, Haur Hezkuntzaren helburu garrantzitsuenetako bat haurraren garapen integrala sustatzea da, hau, jolasaren eta askatasunaren bitartez motibazioan oinarrituz egitea ezinbestekoa da. Izan ere, etapa honetan hasten da haurraren garapen fisikoa, afektiboa, soziala eta intelektuala eta globala eta hau guztia lortzeko Hezkuntza musikala beharrezkoa da.

Hezkuntza musikalak haurren garapenean duen garrantzia aipatu ondoren, honek, 0-6 etapan haurren garapenean dituen ekarpenak eta onurak zeintzuk diren azalduko dira Calvo eta Bernal, in Pascual (2006), Akoschky, Alsina, Diaz, Giraldez eta Barbarroja (2008), Calvo y Bernal, 2000 in Pascual (2006), Pascual (2006) eta Sarget (2003)etan oinarrituz.

0- 4 hilabete	<ul style="list-style-type: none"> • Jaioberriak hizkuntza berbala doinu hizkuntzatik desberdintzeko gaitasuna du. • Soinuak emititzeko gai da, melodiarik gabe. • Soinu horiek deiak egiteko erabiliko ditu.
4 hilabete	<ul style="list-style-type: none"> • Musika entzutean besoak, hankak eta burua mugitzen hasten da. • Soinuari erantzun bat ematen dio.
5-6 hilabete	<ul style="list-style-type: none"> • Haurrak hizkuntzaren eta soinuaren arteko desberdintasunak egin ditzake. • Abesti batzuk ezagutu dezake.
8-12 hilabete	<ul style="list-style-type: none"> • Haurra zentzuzkoak diren gauzak egiten hasten da. • Adimenaren garapena ematen da eta memoria eta nahiak agerian jartzen dira. • Koordinazioa garatzen da eta objektuak lurrera botatzen hasten da erortzean haien soinua entzuteko. • Hitzak eta erritmoak imitatzen hasiko da eta soinuei eta musikari mugimenduaren bidez erantzungo du.
18 hilabete	<ul style="list-style-type: none"> • Haurren mugimenduaren garapena nabariagoa da. • Adin honekin gai da burua eta oinak mugitzeko. • Koordinazioa eta oreka erakusten du.
18-24 hilabete	<ul style="list-style-type: none"> • Haurren mugimenduak musikarekin bat joango dira. • Erritmoa eta orekaren garapena nabarituko da.
2 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Abesti batzuen esaldiak erreproduzitzeko gai da eta hori aurretik gogoratzen duenagatik edo motibazioagatik eman daiteke. • Erreproduzio hori intonaziorik gabe ematen da. • Haurra musika eta soinuak ezberdintzeko gai da hasieran hitzak antzemanez, gero erritmoa eta azkenik melodia.
3-4 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Haurra abestiak abesteko gai da. • Dantza egiterako orduan eta abestiak asmatzerako orduan sormena erakusten hasten da.

4-5 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Haurrak duen soinuak erreproduzitzeko gaitasun sinbolikoa gero eta hobeagoa da eta abestiak gero eta hobeto gogoratzen ditu. • Koherentzia erakusten hasten da abestien esaldien artean. • Intonatzeko gaitasuna handiagoa da. • Abestiak asmatzeko gaitasuna erakusten du.
5-6 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Mugimenduan koordinazioa agertzen da. • Musikaren erritmoa jarraitu dezake txaloak emanez. • Garapen motorra zein entzuketa musikari esker, haurrak saltoak eta dantza egin dezake musikaren erritmoa jarraituz.

Guzti hau kontuan hartu behar da haurrei musika eskaintzerako orduan, izan ere ikusi den bezala etapa bakoitzean dituzten gaitasunak ezberdinak dira eta musika jarduerak egiterako orduan, etapa horietan gertatzen dena hartu behar da kontuan.

3.2 ARLOAREN EGOERA

Gaur egun, musika hezkuntzarekin lotuta, aurretik aipatu eta azaldu den moduan, badira baliabide eta material batzuk. Jarraian, musika-hezkuntza lantzeko dauden baliabide eta materialek zeintzuk diren azalduko dira.

Hasteko aipatu, gaur egun badirela euskaraz ditugun materialak. Hain zuzen ere, Maria Pilar Ochoa de Eribe Royok, eskoletan musika lantzeko *Tutti da capo* izeneko bilduma bat sortu zuen. Hau, musika irakasteko berak sortutako metodo praktikoa bat da eta bertan klaseak garatzeko ikasle eta irakasleei zuzendutako materialak biltzen ditu.

Bilduma horretan, musika praktikan jartzeko atal ezberdinak lantzea proposatzen dira, hau da, ahotsa, instrumentua, musika hizkuntza, entzuketak, kantak, ipuinak, joko musikalak eta dantzak.

Liburuan, irakasleak klasea ematerako orduan izan behar duen papera eta kontuan hartu beharko dituen hainbat puntu azaltzen dira, horretaz gain, baita erabili behar den metodologia zein den eta saio bakoitzean egingo diren ariketak daude.

Ochoaren esanetan, musikak hezkuntzaren barruan garrantzia handia dauka baina oraindik ez zaio behar duen garrantzirik eman (Ochoa, 1999). Horregatik, sortu zuen musika irakasteko metodo hau.

Tutti da capoz gain, *Txirulaz* liburua dugu liburu honetan, txirula jotzen irakasteko gomendioak eta partiturak datoz (Zabala, 2009).

Bestalde, *Pentagrama-enea* dago, lehen hezkuntzan musikaren irakurketa-idazketa prozesuarekin hasteko sekuentzia didaktiko bat da. Ipuina eta nota bakoitzari kanta bat esleitzen zaio eta horrela musika hizkuntzaren notazioaren kodea lantzen da bertan (Jauregi, Mujika eta Fullaondo, 2004).

Hauetaz gain, badira beste batzuk musika hezkuntza beste hizkuntza batzuetan lantzen dituztenak. Pilar Pascualek hainbat ditu: *Didáctica de la música para infantil* (2006); *Didáctica de la música para Primaria* (2010); *Cuaderno de actividades musicales* (2002); eta hainbat testuliburu bilduma beraien lan koadernoekin: *La batuta mágica* (2005); *Crescendo* (2007), *Tarantella* (2013), *Música en vivo* (2015). Liburu hauek Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzarako daude bideratuta.

Pascualen liburuez gain, badira beste batzuk esaterako: *La música en Educación Infantil: Investigación y practica* (Glauschankof eta Perez-Moreno, 2017). *Desarrollo de la Expresión Musical en Educación Infantil* (Cremades, García-Gil, Lizaso, Morales, Del Olmo, Román eta Sustaeta, 2017) edota *Aprendizaje musical para niños: Metodologías y sistemas pedagógicos de la didáctica musica* (Martí, 2016).

Liburuez gain, gaur egun badira beste material batzuk esaterako, artikulua edo gradu amaierako lanak. *La Educación musical en la etapa infantil* (Cañete, 2010) artikulua eta *La importancia de la música para el desarrollo integral en la etapa Infantil* (García, 2014) musika eta hezkuntzaren inguruan idatzitako gradu amaierako lan bat.

Azkenik, esan beharra dago material ezberdinak aurkitu arren, Haur Hezkuntzan musikaren inguruan material asko ez dagoela. Gaur egun, egoera hobetuz doa eta material berriak sortu diren arren Lehen eta bigarren hezkuntzarako material gehiago daude Haur Hezkuntzarako baino.

3.3 MUSIKA EDUKIAK ANTOLATZEKO HAINBAT PROPOSAMEN

Haur Hezkuntzan musika edukiak antolatzeke proposamen batzuk badaude, proposamen hauek 0-6 urte bitarteko etapan zikloaren arabera ezberdinak dira.

Pascualek bere liburuan hainbat metodo pedagogiko-musikal daudela azaltzen ditu. Metodologia hauek hiru ataletan bereizten ditu: hezkuntza erritmikoaren metodologia, entzutezko hezkuntzaren metodologia eta ahozko hezkuntzaren metodologia.

Hezkuntza erritmikoaren metodologiaren barruan, hiru metodo bereizten ditu: Dalcroze metodoa, mugimenduaren bidez kontzeptu musikalak erakustean datza; Orff

metodoaren arabera, musika-hezkuntzaren hasiera erritmoan dago eta hau hizkuntzan eta mugimenduan modu naturalean gertatzen da; eta Suzuki metodoa, ikasketa instrumentalean oinarritzen da. Entzutezko metodologiaren barruan bi metodo bereizten ditu: Willems, metodo naturala dena, ama hizkuntzaren ikasketetan oinarritzen dena; eta Martenot, berezko erritmoa egoera puruan lantzean. Azkenik, ahozko metodologiari dagokionez bi metodo bereizten ditu: Kodaly, haurren gaitasunak, ezagutzen dituen kantu tradizionalen arabera garatzean oinarritzen da eta Ward, haurren kantura bideratuta dago (Pascual, 2006).

Aipatutako 3 atal hauek jarraian azalduko diren 5 multzo ezberdinetan jorratuko dira. Izan ere, Haur Hezkuntzan eta musika ikasketetan zehar, 5 multzo ezberdin bereizten dira eta hauek bi ziklotan banatzen dira: Musika hizkuntza, entzumen musikala, mugimendua eta dantza, ahotsa eta kantua eta azkenik, instrumentu musikalak.

Musika irudikatzeko eta komunikatzeko ete adierazteko modu gisa pentsatuta dago. Musikak soinuaren ezaugarriak erabiltzen ditu sentimenduak, emozioak eta ideiak adierazteko. Hau da, pertsonen arteko komunikazio-tresna da, eta sormen-adierazpena ahalbidetzen ditu (Oriol, N. M, 1992).

Musika hizkuntzaren multzoan, lehenengo zikloan, grafia ez konbentzionalak erabiltzen dira, horretaz gain aurretik aipatu diren bezala soinuaren ezaugarriei dagokionez, bi maila bereizten dira luzea-laburra, zorrotza-grabea, forte-piano eta bi soinu ezberdin. Bigarren zikloan, partituren oinarritzko elementuetara hurbiltzea da helburu, horretarako pentagramak, sol klabea, noten irudiak bereiztea (borobila, zuria, beltza, kortxea) lantzen dira. Eta horretaz gain, soinuaren ezaugarriei dagokionez hiru maila bereizten dira. Luzea-ertaina-zorrotza edo borobila-zuria-beltza, grabea-ertaina-zorrotza, forte-mezzoforte-piano eta hiru soinu iturri ezberdin (Barrena, 2018).

Bigarren multzoa, **entzumen musikala** da, multzo honi dagokionez, lehenengo zikloan entzuketa aktiboa: “es un proceso que implica la participación activa del oyente además de ser un proceso con numerosas actividades asociadas a él” (Wuytack y Boal-Palheiros, 1995, orr. 13) eta ipuin musikalak lantzen dira.

Bigarren zikloan, aldiz, entzuketa aktiboa (entzuten eta ulertu entzuten ari garena), margolan musikalak, diktaketa musikalak eta entzuketa eta mugimendua. Margolan musikala, “musika-lan baten oinarrituz, musika, irudiak, lerroak, zirriborroak, zirrimarrak

etab. egitea da, musikak iradokitzen duenaren arabera” (Garcia, 2018, orr 7) eta diktaketa musikala “entzuten dena grafikoki adieraztea da, ohiko edo ezohiko idazkeran” (Garcia, 2017, orr 32).

Hirugarren multzoan, **mugimendua eta dantza** daude. Lehenengo zikloan, pultsua mugimenduarekin markatu eta mugimenduarekin entzuten diren soinuak erantzuten dira eta bigarren zikloan, musika eta mugimenduaren arteko sinkronizazioarekin hasten dira, mugimenduarekin entzuten diren soinuak erantzuten dira eta dantza eta dramatizazioa lantzen dira.

Laugarren multzoan, **ahotsa eta kantua** daude, lehenengo zikloan bost nota kantatzen dira do-sol, ahotsaren erabileraren pertzepzioa “abesten ari naiz” da. Bigarren zikloan, zortzi nota kantatzen dira do-Do eta ahotsaren erabileraren pertzepzioa jarduera musikalaren barruan “abesten dut dantzatzen” da, mugimendu sinpleak eginez.

Azkenik, bostgarren multzoan **instrumentu musikalak** ditugu. Lehenengo zikloan, instrumentuak ikusi, entzun eta erabili egiten dira, horretaz gain gorputza instrumentu gisa erabiltzen da: gorputz-perkusioa eta ahotsa, imitazioak egiten dira galdera-erantzuna (imitazioa partitura gabe), soinuaren ezaugarriak adierazteko erabiltzen dira, inguruko elementuak soinu iturri bezala erabiltzen dira eta perkusio txikia erabiltzen da, soinua zehaztu gabekoa. Bigarren zikloan, instrumentuak ikusi, entzun eta erabili egiten dira, gorputza instrumentu gisa erabiltzen da: gorputz-perkusioa eta ahotsa, soinuaren ezaugarriak adierazteko erabiltzen dira, instrumentu musikalak eraikitzen dira, inguruko elementuak erabiliz eta perkusio txikia erabiltzen dira, soinu zehaztu gabekoekin eta soini zehatzekoekin (xafllakoak).

Guzti hau azaldu ostean, aipatu beharra dago ikasgeletan musika lantzerako orduan oso garrantzitsua dela musika egitea, entzutea, sortzea eta aintzat hartzea, hau da, esperientzia musikala izatea. Izan ere, 0-3 etapan soinuak eta musika egitea eta entzutea izango da helburua. Beraien ezaugarri, interesen eta gaitasunekin. Horregatik, proposatzen diren ekintzek ere bere garrantzia dute izan ere, etapa honetan esplorazioa, imitazioa eta jolasa baliabide garrantzitsuak dira ekintzen eta inizatiba autonomoen arteko oreka ezartzeko (Akoschy, Alsina, Diaz eta Giraldez, 2008, 39-40.orr).

4. HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia, Oñatiko Errekalde Herri Eskolako 5 urteko gelako umeek musika saioetan jasotzen duten musika hezkuntza nolakoa den behatzea izan da.

Hori abiapuntu izanda, honako hau lortu nahi izan da:

Hasteko, behatutako ikasgelan, hezkuntza musikalaren egoerari hurbilpen bat egitea nahi izan dugu. Hau da, behaketaren bidez, jasotako informazioarekin gaur egun ikastetxe eta kasu zehatz batean hezkuntza musikalaren egoera nolakoa den ikustea.

Bestalde, hurrek jasotzen duten musika hezkuntza egokia den edo ez behatzea eta baloratzea nahi izan dugu. Behin, musika hezkuntzaren inguruko teoria irakurri ostean eta adituek esaten dutena aztertuta, behaketan jasotako informazioa aztertu eta horren arabera balorazio bat egitea.

Azkenik, musika hezkuntza egoki bat emateko baliabide eta material egokiak eskaintzen diren edo ez behatzea. Hau da, teoria eta aditu ezberdinak aztertuz, beraiantzat egokiena zer den ikusi ondoren, musika saioetan erabiltzen diren baliabide eta materialak egokiak diren edo ez behatzea.

5. METODOA: LANA EGITEKO URRATSAK

Gratu Amaierako lan hau aurrera eramateko urrats ezberdinak eman dira:

Hasteko, musikaren inguruko hainbat liburu, artikulu, apunte eta informazio irakurri eta aztertu dira, musikaren inguruko teoriak eta hauek haurraren garapenean duten eragina zein den jakiteko eta aztertzeko.

Horren ostean, klasean sartu baino lehen behaketarako fitxa bat diseinatu da, garrantzitsuak diren arloak eta parametroak ezarriz eta klasean lantzen diren edukietan zentratuz.

Dokumentazioa haurren ikaskuntza behatzeko teknika bat da, entzutean eta errespetuan oinarritzen dena. Dokumentazio zabal eta handi batek, haur bakoitzaren prozesua eta estrategia agerian uzten ditu, irakurketa, elkartzea eta ebaluazioa ahalbideratzen ditu eta funtsezkoa dirudi prozesu meta-kognitiborako eta haurrak eta helduak elkar ulertzeko (Malaguzzi, 2001). Beraz, hau izan da gure asmoa: behaketaren bidez, Oñatiko Errekalde Herri Eskolako 5 urteko umeei jasotzen duten musika formakuntza dokumentatzea.

Behin fitxa diseinatuta, informazioa jasotzeko ikasgela batera sartu eta 5 urteko haurren musika esperientzia baten behaketa egin da, 3 hilabetetan zehar astero izaten zuten esperientziaren nondik norakoak jasoz. Dokumentazio hori behaketa eta interpretazioarekin egitea beharrezkoa da (Malaguzzi, 2001) eta horretarako aurretik diseinatutako fitxa erabili da. Helburua, informazioaren aberastasuna, sakontasuna eta kalitatea delako (Hernández, Fernández, Baptista, 2014).

Informazio guzti hori klasean bertan apunteak hartuz egin da. Aipatu nire papera behatzaile paperarena soilik izan dela, ez dut inongo momentuan haurren ekintzetan parte hartu kasu puntual batzuetan soilik, irakasleari laguntzeko. Behaketan zehar gertatzen dena ondoen ulertzen duena, parte-hartze aktiboa duen behatzailea da baina aldi berean behatzaile ikuspuntua galdu lezake (Hernández, Fernández, Baptista, 2014). Horregatik, kasu honetan nire papera parte-hartze gabekoa izan da.

Irakaslearekiko harremanari dagokionez, irakaslearen inguruko informazioa, elkarrizketa informaletatik jaso nuen. Izan ere, ez nuen berarekin elkarrizketa formal bat egiteko aukerarik izan.

Bukatzeko, behaketa egin ostean jasotako informazioa aztertu eta horren balorazio bat egin da ondoren, hobekuntza proposamen ezberdin batzuk eginez teoriak dioena eta curriculumeko eduki, helburu eta gaitasunak kontuan hartuz.

Laburbilduz, prozesu honetan nik egin dudana, behaketa baten hurbilpen bat egitea izan da, informazio biletarekin eta jasotako informazioa interpretatuz, kontziente izanda egindako behaketa denboran eta jasotako inpresioetan mugatua eta partziala izan dela eta landutako edukietan eta irakaslearen paperean zentratu gara.

6. EMAITZAK

6.1 BEHAKETA AURRERA ERAMAN DEN ESKOLAREN TESTUINGURUA

Errekalde herri eskola Oñatin kokatzen den ikastetxe publiko bat da. Bertan, Haur eta Lehen Hezkuntzako 386 ikasle eta 38 irakasle daude.

Ikastetxean hainbat espazio eta gela aurki daitezke, besteak beste, bi psikomotrizitate gela, musika gela, ingeleseko gela, soinketa gela, informatika gela eta maila bakoitzeko gelak baita hezkuntza bereziko gelak, liburutegia, bideo gela, eskulanetarako gela ere.

Bestalde, aurtengo ikasturtean berritutako sotoa dago eta hori ekintza desberdinetarako erabiltzen da, esaterako, areto bezala edo jolastoki bezala euria denean. Gurasoen gela bat ere badago, guraso elkarteko bilerak egiteko eta balio anitzeko gela bat ere aurki daiteke.

Bi urteko umeentzako jolastoki berezia dago, beraien gelaren alboan eta helduentzat berdegunez inguratutako jolastoki zabala bat aurki daiteke (ziburuak, saskibaloia kantxa, futbol zelaia duena). Kanpoko espazio horrez gain eraikinaren barrualdean, jangela eta sukaldea daude bertan, 3 sukaldarik eta 10 zaintzailek umeak zaindu eta janaria emateko egiten dute lan.

5 urteko gelan, guztira 19 ikasle dira, horietatik 10 neskak eta 9 mutilak dira. Gelari dagokionez, txoko ezberdinetan banatuta dago espazioa. Gelan alde batetik, eraikuntza eta marrazketa txokoa daude eta bestetik haurrak asanbladak egiteko txokoa dago. Beste txoko ezberdinak hiru, lau eta bost urteko geletan zehar banatuta daude zirkulazio librea metodologia dela eta.

Musika gelari dagokionez, Musikako klasea bi ikasgela ezberdinetan ematen da. Musika gela (1) , espazio handiko gela bat da eta bertan irakaslearentzat mahai bat eta aulki bat daude, beste espazio guztia haurrentzat libre dago. Musika gela (2), tamainaz beste gelaren berdina da, baina bertan irakaslearen mahai eta aulkiaz gain, ikasleentzat ere badaude, eta piano bat.

Honetaz gain, irakaslearen profilarri erreparatuz, irakaslea mutila da eta 30 urte inguru ditu eta Lehen Hezkuntzako Musika espezialista da. Orduategiari dagokionez, hasieran klaseak Haur Hezkuntzan bakarrik ematen zituen musikako irakasle finkoa zenak, orduategi murrizketa zuelako. Orduan irakasle batek Lehen Hezkuntzan eta besteak Haur Hezkuntzan ematen zituzten klaseak.

Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko geletan ematen zituen klaseak, astean behin eta bakoitza 45 minutukoa. Baina gero Lehen Hezkuntzan ere eman behar izan ditu klaseak, beste irakaslea bajan egon den bitartean. Beraz, hasieran lanaldi partziala zuen baina orain osoa. Guztira Haur Hezkuntzan 270 ordu inguru egiten ditu.

Nire papera, behatzailearen papera izan da. Haurrak ariketak egiten zeuden bitartean ni ikasgelaren albo batean egon naiz behaketa egiten eta informazioa jasotzen, une batzuetan tartean sartu naizen arren zerbait esatera edo irakasleari laguntzera, baina kasu puntualetan soilik izan da hori.

6.2 JARDUEREN DESKRIBAPENA

4.eranskinean jasotzen den tauletan oinarrituta, hona hemen musika saio bakoitzaren deskribapena kronologikoki azalduta.

2018-11-06

Klaseari hasiera emateko irakasleak, TUTTI DA CAPO liburua erabili du. Liburua hau, Haur eta Lehen Hezkuntzako hurrei musika irakasteko zuzenduta dagoen liburu bat da. Bertan, ipuin desberdinak daude irakasleak hurrei irakurtzeko eta hauek, atzealdean irudiak dituzte hurrek ipuina hobeto uler dezaten.

Kasu honetan, irakasleak Antonio Vivaldiren istorioa kontatu du. Ipuina irakurtzen zuen bitartean, atzetik musika lasaia jarri du.

Behin ipuina irakurri ostean, hainbat jarduera egin dira:

Lanean hasi aurretik, arnasketa ariketak batzuk egin dute. Ariketa hauetan, haurrak irakasleak egindakoa errepikatu dute: Arnasa sudurretik hartu eta ahotik bota hainbat alditan.

Arnasketa ariketak egin ostean, ahotsa berotzeko ariketa bat egin da, horretarako hurrek irakasleak esandakoa errepikatu dute.

TXI-TXI-TXI-TXI TXI-TXI-TXU
TXA-TXA-TXA-TXA TXI-TXU-TXUN
TXI-TXON-TXUN
TXI-TXI-TXI TXA-TXA-TXA

Ahotsa berotu ostean abesteko momentua da, irakasleak hainbat nota abesten ditu eta hurrek errepikatu egin beharko dute: Do, re, mi...Do, re, mi.



Hurrengo ariketa, erritmo ezberdinak lantzea izan da, horretarako gorputz-perkusioa erabili dute. Txaloen bitartez irakasleak beltza eta kortxearen erritmoak egin ditu eta haurrek berak egindakoa errepikatu dute.



Klaseari amaiera emateko, talde guztiak batera *txiki txikia* abestia dantzatu eta abestu dute.

Txiki, txiki, txikia
ikusten naiz kalean
handitzen, handitzen
hasi naiz haunditzen
txikia izanik asko
maite zaitut nik.

Bi begi ikusteko,
bi belarri entzuteko,
handitzen, handitzen
hasi naiz handitzen
txikia izanik asko
maite zaitut nik.

Ahoa gozatzeko,
sudurra usaintzeko,
handitzen, handitzen
hasi naiz handitzen
txikia izanik asko
maite zaitut nik.

Eskuak ukitzeko,
bi oinak ibiltzeko,
handitzen, handitzen
hasi naiz handitzen
txikia izanik asko
maite zaitut nik.

Burua pentsatzeko,
bihotza maitatzeko,

handitzen, handitzen
hasi naiz handitzen
txikia izanik asko
maite zaitut nik.

OHARRA: Irakasleak galdetu duenean, haurrak aurreko eguneko istorioarekin oroitzen ziren.

2018-11-13

Klaseari hasiera emateko, irakasleak TUTTI DA CAPO liburutik ipuin bat kontatu du, ipuina irakurtzen zuen bitartean, Antonio Vivaldiren *udaberria* abestia atzetik jarrita izan du.

Ipuina kontatu ostean, ahotsak berotzeko momentua izan da, horretarako irakasleak abestu eta haurrak berak abestutakoa errepikatu dute:

TU-TU-TU-TU TU-TU-TU

LO-LO-LO-LO LO-LO-LO

NU-NU-NU-NU NU-NU-NU

RO-RO-RO-RO RO-RO-RO

Behin ahotsa berotuta, intentsitatea lantzeko ariketak egin dituzte, eta horretarako ahotsa berotzeko abesti berdina erabili dute eta abesti hori intentsitate ezberdinekin abestu dute. (Forte-Piano)


TU-TU-TU-TU TU-TU-TU (Forte)

LO-LO-LO-LO LO-LO-LO (Piano)

NU-NU-NU-NU NU-NU-NU (Forte)

RO-RO-RO-RO RO-RO-RO (Piano)

Hurrengo ariketa, nota ezberdinak abestea izan da. Irakasleak hainbat nota abestu ditu eta haurrak berak abestutakoa errepikatu dute. Do, re,sol,do... Sol, sol, mi, mi, re, re, mi.



Jarraitzeko jolas bat egin dute: Haurrak ahateak izan dira eta triangelua eta danborra jotzean gelan zehar mugitu behar izan dute.

Danborra jotzean, haurrak lakutik kanpo ibili behar izan dute eta triangelua jotzean, aldiz, lakura sartu behar zuten. Irakasleak ezer ez bazuen jotzen, hau da, ez triangelua ez danborra, haurrak geldi geratu behar ziren.

Hurrengo ariketa, erritmoa lantzeko ariketa izan da, horretarako haurrak bi taldetan banatu dira. Talde erdia txakurrak izan dira eta beste talde erdia ardiak. Irakasleak danborrarekin beltza jotzen zuenean, denak, zelaatik kanpo ibili behar ziren lasai-lasai. Kortxea jotzean zuenean aldiz, txakurrek ardiak zelaira eraman behar zuten.

Jolasa bukatu ostean, hurrek instrumentuak (triangelua eta danborra) jotzeko aukera izan dute. Irakasleak instrumentu bakoitza nola jotzen den azaldu eta ondoren, hurrek banan-banan jo dute.

Klasean zehar irakasleak izan duen papera, Gidatzailearen papera izan da. Haurrei argibideak eman die egin behar zutena aurrera eramateko eta pauta ezberdinak emanaz jarduera aurrera eraman ahal izateko.

2018-11-20

Klaseari hasiera emateko, TUTTI DA CAPO liburutik, irakasleak *Mari txikiren* istorioa kontatu du.

Horren ondoren, arnasketa ariketak egin dituzte. Hurrek eskuak sabelean jarrita, airea sudurretik hartu, tripa bere, mantendu eta ahotik bota dute.

Behin arnasketa ariketak egin ostean, nota ezberdinak errepikatu eta solfeatu dute. Irakasleak abesten zuena eta hurrek errepikatu egin dute:

RI-RI-RIKIRI-RU

RI-RI-RI-U-RI


TIKI-TIKI-TIKI-TON

RI-RI-RI-U-RI

Nota ezberdinak abestu eta solfeatu: Sol, re, mi, re...mi, re, sol, re.



Jarraitzeko, gorputz-perkusioa erabiliz, eskuekin txaloak eginez, oinekin lurra joaz eta eskuekin belauak erritmo ezberdinak landu dira. Irakasleak erritmo ezberdinak egiten zituen eta hurrek berak egindakoa errepikatzen zuten.




Klasea amaitzeko, intentsitatea lantzeko ariketak egin dute. Horretarako danborra erabili dute. Irakasleak, danborra intentsitate ezberdinetan jo du (Forte/Piano). Hurrek, irakasleak *piano* jotzean, lau hanketan ibili behar zuten eta *forte* jotzean, oinez.

OHARRA: Irudiek, hurren arreta berenganatzen lagundu die eta aurreko egunean kontatutako Antonio Vivaldiren istorioarekin oroitzen ziren.

2018-11-27

Klaseari hasiera emateko, irakasleak TUTTI DA CAPO liburutik istorio bat kontatu du, istorioaren izena *Txon jauna* izan da. Irakasleak istorioa kontatzen zuen bitartean, atzetik Leopold Mozarten *sinfonia de los juguetes* obra jarri du, “Hemendik eskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=QcDIsQATepU>”.

Horren ondoren, nota ezberdinak solfeatu eta abestu dute: Sol, sol, mi, mi , do...mi, mi, sol, mi, mi, do.



Behin abestuta, erritmo ezberdinak landu dute, horretarako gorputz-perkusioa erabili dute. Txaloak eta eskuak hankan joaz irakasleak beltza eta kortxeak egin ditu eta hurrek berak egindakoa errepikatu behar izan dute.



Jarraitzeko, erritmoak lantzeko jolas txiki bat egin dute. Horretarako danborra erabili dute. Irakasleak danborrarekin beltzaren erritmoa jotzen zuenean, hurrek edatearen keinua egin behar izan dute eta kortxea jotzen zuenean, jatearen keinua.

Klasearekin bukatzeko jolas bat egin da. Jolas honetan, irakasleak pianoa eta danborra jo ditu. Pianoa jotzen zuenean, bi nota ezberdin jotzen zuen *DO* eta *SOL*.

DO jotzean, hurrek eskuak buru gainean jarri behar zuten eta *SOL* jotzean eskuak ipurdi azpian jarri.

Danborra jotzean, *beltza* eta *kortxea* jotzen zuen. Beltza jotzean, hurrak oinez ibili behar zuten beltzaren erritmoa jarraituz eta kortxea jotzean, aldiz, oinez ibili behar zuten baina kortxearen erritmoa jarraituz.

OHARRAK: Haurrei notak bereiztea kostatu. Askok ez zituzten desberdintzen DO eta SOL notak.

2018-12-05

Klaseari hasiera emateko, TUTTI DA COPO liburutik *Izenik gabeko herria* ipuina kontatu du irakasleak atzetik musika lasaia jarrita zuela.

Horren ostean, arnasketa ariketak egiteko momentua izan da, horretarako haurrek eskuak tripan jarri eta arnasa sudurretik hartu dute sabela beteaz eta ahotik bota dute sabela hustuaz.

Behin, arnasketa ariketak eginda, ahotsak berotu dute eta hori egiteko haurrek, irakasleak abestutakoa errepikatu dute.

TU-TU-TU-TI-TU-TI-TU

LA-LA-LA-LA-LA-LA-LA (Tonua gorantz)


TU-TI-TU-TI-TU-TI-TU

LA-LA-LA-LA-LA-LA (Tonua beherantz)

Hurrengo ariketa intentsitatea lantzeko ariketa izan da. Horretarako goiko abestia eta behekoa aprobetxatu ditu irakasleak. Abesti hauek intentsitate ezberdinetan abestu dute (*forte eta suabe*). Mi, mi, sol, do, do, do, sol...mi, mi, sol, sol, mi, do.



Ondorengo jarduera, erritmoa lantzeko izan da. Gorputz-perkusioa erabiliz, txaloak eta eskuekin sorbaldak joaz erritmo ezberdinak egin dituzte.



Behin erritmoa landu dutenean, instrumentuen ordua izan da. Hurrek hainbat instrumentu ezberdin jo dituzte. Klabea, kaxa txinatarra eta danborra. Lehenengo irakasleak instrumentua jotzen zuen eta ondoren hurrek berak jotakoa errepikatu behar zuten.

Klaseari amaiera emateko jolas bat egin dute. Irakasleak pianoarekin SOL eta DO notak jotzen zuen. SOL jotzean, hurrek pertsonen moduan ibili beharra zuten gelan zehar eta DO jotzean, gorilak izango balira bezala.

Horren ostean, *Mickey Mouse, Donald Duck, Goofy The Band Concert* ikus-entzunezkoa ikusi dute. “Hemendik eskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=7lz9gxsgAJI>”.

OHARRA: Hurrek irakasleak egindako erritmo ariketak ondo errepikatu dute. Bestalde, pianoarekin SOL eta DO notak bereiztea asko kostatu zaie.

2018-12-12

Irakasleak, klaseari hasiera emateko TUTTI DA CAPO liburutik *Ehiztari ehizatua* ipuina kontatu du. Ipuina irakurtzen zuen bitartean atzetik, Vivaldiren *Udaberria* obra jarri du. “Hemendik eskuratuta https://www.youtube.com/watch?v=j6EJBV-V_fw”.

Jarraitzeko, arnasketa ariketa batzuk egin dute. Lurrean eserita, sorbaldak mugitu gabe sudurretik arnasa hartu, sabela bete, bertan mantendu eta ahotik bota dute.

Arnasketa ariketak egin ostean, irakasleak abesti bat abestu du eta hurrek berak esandakoa errepikatu dute.

TU-TI-TU-TI-TU-TI-TU

LA-LA-LA-LA-LA-LA-LA

Jarraitzeko, goiko abestia erabili dute intentsitate ezberdinak lantzeko (forte/piano). Horretaz gain, nota batzuk ere abestu dute. Mi, mi, sol, do, do, sol...mi, mi, sol, sol, mi, mi, do.



Horren ostean, erritmoa lantzeko ariketak egin dituzte. Gorputz-perkusioa erabiliz, txaloak eta eskuekin hankak joz.



Hurrengo ariketa, *Zer dakit* abestia abestea izan da. Irakasleak abestia abestu du eta hurrek irakasleak abestutakoa errepikatu dute.

ZER DAKIT, ZER DAKIT

BADAKIT BADAKIT

ESKUAK GARBITZEN

ESKUAK GARBITZEN

BADAKIT BADAKIT

Ondoren, intentsitate ezberdinak lantzeko jolas bat egin dute. Intentsitate ezberdinak egiteko, irakasleak danborra erabili du. Jolas honetan, haurrak hipopotamoak eta jirafak izan dira.

Irakasleak danborra *PIANO* jotzean, haurrak Jirafak izan dira eta zeuden lekuan geldi geratu behar ziren zuhaitzetatik hostoak jaten arituko balira bezala. Aldiz, *FORTE* jotzean, Hipopotamoak izan dira eta gelan zehar lasai ibili dira.

Horren ostean, beste jolas batera aritu dira. Kasu honetan, musika jarrita zegoen bitartean haurrak gelan zehar dantzatu, ibili, mugitu beharra izan dute. Musika gelditzen zenean, irakasleak zenbaki bat esaten zuen eta haurrak irakasleak esandako zenbakiaren arabera multzokatu behar ziren.

Klasearekin amaitzeko, irakasleak pantailan *Aho bizi belarri prest* abestia jarri die, “hemendik eskuratuta <https://www.youtube.com/watch?v=gTmtV9C9HdA>” eta haurrak abesten eta dantzatzen aritu dira eta horren ondoren, Ene Kanten *Astonauta* abestia. “Hemendik eskuratuta: https://www.youtube.com/watch?v=J_Ua9T74WY”

OHARRA: Forte/piano kontzeptuak erraz bereiztu.

2018-12-19

Klaseari hasiera emateko, irakasleak TUTTI DA CAPO liburutik, *Bat jaun andrearen* istorioa kontatu du, atzetik *Tocata y fuga en Re menor de Johan Sebastian Bach* jarrita. “Hemendik eskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=ho9rZjlsyYY>”.

Horren ostean, arnasketa ariketak egin dituzte. Horretarako, hurrek eskuak sabelean jarri dituzte, eta sudurretik arnasa hartu, sabelean mantendu eta ahotik bota dute. Guzti hori bost aldiz errepikatuz.

Horren ondoren, abesteko momentua izan da. Irakasleak abesti bat abestu du eta hurrek errepikatu egin dute.

DIN-DON-DIN-DON-DIN-DON-DAN

DIN-DON-DIN-DON-DAN

Abestia abestu ondoren, abesti bera intentsitate ezberdinetan abestu dute (forte/piano). Eta baita ondorengo abestiak ere:

NU-NU-NU-NU

RO-RO-RO-RO

NU-NU-NU-NU

RO-RO-RO-RO

SOL-SOL-MI-MI-DO

MI-MI-SOL-MI-MI-DO

SOL-SOL-MI-MI-DO-DO

SOL.MI-MI-SIL-SOL-MI-MI-DO

Behin ahotsa berotuta, erritmoa lantzeko ariketak egiteko ordua izan da. Horretarako, hurrek gorputz-perkusioa erabili dute (txaloak eta eskuekin izterrak jotuzte).





Erritmoa lantzen jarraitzeko, instrumentu ezberdinak hartu dituzte, kasu honetan triangelua eta danborra.

Irakasleak, hurrei instrumentu bakoitza nola jotzen den azaldu die: Nola hartzen diren, nola eutsi...

Ondoren, irakasleak danborrarekin jo duena haurrak triangeluarekin errepikatu dute.



Jarraitzeko, beste ariketa bat egin dute. Kasu honetan, irakasleak danborrarekin *beltza* eta *zuria* jo ditu.

Beltza jotzean, gailetak jango zuten keinua egin behar izan dute eta *zuria* jotzean, esnea edaten egongo ziren keinua.

Hurrek keinuak irakasleak danborra jotzen zuen erritmoan egin behar zuten.

Klaseari amaiera emateko, aulkien jolasa egin dute. Haur bakoitza aulki batean eserita zegoen, musika jartzean aulkien inguruan bueltaka eta dantzatzuz ibili dira eta musika geratzean aulkian eseri behar zuten.

Horren ostean, aulki bat kentzen zen, eta ondoren berriz ere aulkien inguruan dantzatu behar zuten berriz ere musika geratu arte. Momentu horretan, guztian zeuden aulkietan eseri behar zuten ahal zuten moduan. Helburua, guztiak

elkar lagunduz aulkietan esertzea izan da. Bukaeran, aulki bat geratu arte eta denak bertan eserita egon arte.

OHARRA: Haurrak, beltza eta kortxea kontzeptuak barneratuta dute, zuriaren kontzeptua, aldiz, gaur ikasi eta beltzarekin nahasten zuten.

2019-01-08

Klaseari hasiera emateko, irakasleak TUTTI DA CAPO liburutik, *Mari gozo* ipuina irakurri du, atzetik musika lasaia jarrita.

Horren ostean, arnasketa ariketak egin dute. Arnasa sudurretik hartu, mantendu eta ahotik bota.

Arnasketa ariketak eginda abesten hasi dira eta horretarako irakasleak abesti bat abestu du eta hurrek berak abestutako errepikatu dute.

RI-RU-RIKITI-RU

RI-RU-RIKITI-RU

RI-RI-RU-RI


TI-KI-TIKI-TON

RI-RI-RU-RI

Jarraitzeko, intentsitatea lantzeko ariketak egin dira, horretarako ondorengo notak (forte/piano) abestu dute. Sol, re, mi, re...mi, re, sol do.



Erritmo ezberdinak lantzeko ariketak ere egin dituzte eta horretarako, gorputz-perkusioa erabili dute. Txaloak eta oinekin lurrean joaz beltzak eta kortxeak egin dituzte.



Klaseari amaiera emateko, bi jolas egin dute. Kasu honetan, intentsitate ezberdinak lantzeko jolas bat egin dute. (Forte/Piano)

Irakasleak danborrarekin *piano* jotzean, haurrak gelan zehar oinez ibili behar zuten eta *forte* jotzean, tunel bat osatu eta bertatik pasatu behar ziren.

Bigarren jolasa, Katuak eta Saguak jolasa izan da. Taldearen erdia katuak ziren eta beste erdia saguak. Irakasleak danborrarekin *beltza* jotzen zuenean, katuak zirenak jaten ari zirenaren mugimendua behar zuten eta *kortxea* jotzean, saguak zirenak berdina egin behar zuten.

OHARRA: Batzuei *beltza* eta *kortxea* kontzeptuak bereiztea kostatu. (Ez dakit benetan bereiztea kostatzen zitzaielako edo harrotuta zeudelako).

2019-01-16

Klaseari hasiera emateko, irakasleak *Carl Orff "o fortuna" Carmina Burana* obra jarrita, hemendik eskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=GXFSK0ogeg4> TUTTI DA CAPO liburutik, *Zoriontasunaren iturria* ipuina irakurri du.


Horren ondoren, abesteko postura egokiak zeintzuk diren azaldu ditu eta arnasketa ariketak egin dituzte. (Haurrak beraiek azaldu dute nola egiten diren arnasketa ariketak).

Jarraian, abesti bat abestu dute, eta horretarako irakasleak lehendabizi abestu du eta hurrek errepikatu egin dute.

TU-TU-TU-TU-TUTU-SOL-MI-RE

RU-RU-RU-RU-RU-RU-RU-RU

Ondoren, pianoa erabili dute nota ezberdinak solfeatzeko: Do, do, re, re, sol, sol, mi... do, do, re, re, mi, do.



Solfeatu ondoren, nota berdinak erabili dituzte intentsitate ezberdinetan abesteko. *Forte* eta *piano* hain zuzen ere.

Ondoren, gorputz-perkusioa erabiliz (txaloak eta putz) erritmoa lantzeko ariketak egin dituzte.



Horren ostean, bi jolas egin dituzte. Lehenengo jolasean, irakasleak danborra erabili du intentsitate (*forte*/*piano*/*mezzo-forte*) ezberdinak egiteko.

Forte jotzean, elefanteak bezala ibili behar ziren gelatik zehar, *mezzo-forte* jotzean, behiak bezala eta *piano* jotzean, oiloak bezala.

Bigarren jolasa, erritmoa lantzeko jolasa izan da. Irakasleak danborrarekin *beltza* eta *kortxea* jotzen zituen eta beraiek danborrarekin jotzen zuen erritmora ibili behar ziren gelan zehar.

Klasea bukatzeko, ekintza berezi bat egin zuten. Erritmo ezberdinak lantzeko, irakasleak pantailan dortoken irudi ezberdinak jarri zituen. Dortoka batzuk handiak ziren eta beste batzuk txikiak. Handiak zirenak *beltzak* ziren eta txikiak

zirenak *kotxeak*. Hurrek TA eta TI-TI erabiliz, partituran jarritakoa abestu behar zuten.




OHARRAK: Abesterako orduan hurrei tonua ezberdintzea kostatu, horretaz gain, batzuei intentsitate ezberdinak (forte/mezzo-forte) bereiztea kostatu eta erritmo ezberdinetara ibiltzea ere kostatu zaie.

6.3 JARDUEREN ANALISIA ETA BALORAZIOA

- Egindako ariketen laburbilduma: Guztira: 10 Aste eta saio

Ipuin kontaketa	9
Arnasketa ariketa	7
Ahotsa berotzeko ariketak	8
Notak abestu	8
Intentsitate ariketak	6
Erritmo ariketak	10
Jolasak	8
Kantak	4
GUZTIRA	60



Taulari eta grafikoari begira jarriz, argi eta garbi ikus daiteke musika saio hauetan portzentajeen gehiengo erritmo ariketek dutela. Musika saioetan zehar gehien erabili diren jarduerak, erritmo ariketak lantzekoak izan direlako. Honi jarraituz, grafikoan hurrengo ipuin kontaketa da, hau behatutako saio guztietan egin da. Ahotsa berotzeko ariketak, notak abestea eta jolasaren bidez bideratutako ariketak izan dira hurrengo jarduerak, hauek ia saio guztietan eman dira. Ondoren, arnasketa ariketak eta intentsitate ariketak egin dira eta azkenik, saio guztietan zehar gutxien egin dena kantak abestea izan da.

Haurrei dagokienez, ikasgelako haur bakoitza behatzea zaila izan da, izan ere, bakoitzaren erritmoak eta ezagutzak ezberdinak ziren. Hala eta guztiz ere, orokorrean behaketa taldean zentratuz egin den arren, une batzuetan ikasle batzuen behaketa egin da. Modu honetan ikusi da, haur bakoitzaren ezagutzak eta interesak ezberdinak zirela, behar bada etxean edo eskolaz kanpo musika landu izan duelako.

Egoera hori kontuan hartuz, musika hezkuntza egoki bat jasotzeko irakaslearen papera erabakigarria dela ikusi da. Haurren motibazioa piztea eta beraien gustuko jolasak egitea gakoak izan dira, haurrei interesa pizteko eta hauetaz gozatzeko. Izan ere, motibazio horrekin haurrei ariketak egiteko eta jolasetan parte hartzeko gogoarekin ikusten zitzairen eta jarrera horrek gauza berriak ikasteko aukera gehiago ematen ditu. Bestalde, irakasleak haurren eskaerei entzuten ziren eta beraientzat gustukoa izandako jarduerak errepikatzen saiatzen zen.

Klaseen dinamikari dagokionez, irakasleak *Tutti da capo* ikas-liburua erabiltzen du eta hori horrela izanik, egunero dinamika eta errutina berdinak egin dira. Egunero dinamika berdina jarraitzea, haurrentzat lagungarri izan da, izan ere, beraiek bazekiten zer egin behar zen eta zein ariketa zetorren bestearen atzetik. Jarduerak, gai berdinek lantzeko izan dira eta horrek haurren garapenen duen eragina behatzeko erraztasunak izan ditu izan ere, beti izan dira erritmoa, melodia edo intentsitatea lantzeko jarduerak.

Erritmoa lantzeko egin diren ariketak haurrentzat egokiak izan dira, gorputz-perkusioa erabiliz beti 2/4 konpasa erabiltzen dute, beltzak eta kortxeak soilik, haien konbinaketa ezberdinekin, teoriak esaten duenaren arabera Haur Hezkuntzako haurrek konpas bitarra menperatzen dute.

Melodia lantzeko ariketak behatuz, haurrek irakasleak abestutakoa errepikatu dute eta asko kostatu zaie notak ezberdintzea abesterako orduan. Izan ere, ariketa batzuetan eskala guztia abestu dute eta notak bereiztea zaila da haurrentzat. Bestalde, aipatu

beharra dago fa eta si notak ez direla erabiltzen. Hauek, tono erdiaren distantzia daude eta disonantzia sortzen dituzten notak dira, hau da, eskala pentatonikoan oinarritzen da disonantziak saihesteko. Ariketa gehienetan 3 desberdin abesten dira baina batzuetan 4 eta 6 ere abesten dute. 6 nota abesten dutenean zortzidunaren saltoa egiten dute eta 3 eta 4 nota abesten dutenean bosteko saltoa egiten dute.

Intentsitatea lantzeko jardueri dagokionez, erraz bereiztu dute intentsitate ezberdinak bi maila ezberdin erabili direlako (piano eta forte), baina kasu batean irakasleak hiru intentsitate maila ezberdin erabili dituzte (forte, mezzo- forte eta piano) zaila egin zaie bereiztea. Hala eta guztiz ere, haurrak maila ezberdinetara ohitzen joateko onuragarria da.

Jarraitzeko, instrumentu musikalei dagokionez, hurrei instrumentu ezberdinak eta bere adinerako egokiak aurkeztu zaie (danborra, klabeak, kutxa txinatarra eta triangelua) baina agian beraiek material hori esploratzeko eta esperimintatzeko aukera gutxi izan dute. Prozesuari dagokionez, hurrek instrumentua ikusi, entzun eta erabili dute eta gorputza ere instrumentu gisa erabili dute.

Mugimendua eta dantzari dagokionez, jarduera hauek jolasaren bitartez landu dira. Hurrek pultsua mugimenduarekin markatu eta mugimenduarekin entzuten diren soinuak erantzuten dituzte.

Jardueren taldekatzeari dagokionez, jarduera gehienak talde osoan eraman dira aurrera, horrek haur batzuei jarraitzeko zailtasunak ekarri die baina orokorrean denak egin dute aurrera, parte hartzea gehiengoa izan da aurretik aipatu bezala, une batzuetan batzuk atzean geratu arren. Izan ere, jarduerak planteatuta zeuden moduan haurrak modu egokian erantzun arren, bazeuden batzuk zailtasunak zutenak arreta mantentzeko, parte hartzeko eta jarduerak egiteko.

Jarduerak aurrera eramaten diren espazioa behatuz, bi espazio ezberdin erabili dira. Espazio aldaketa horrek ez du inolako eraginik izan hurrengan baina beraientzat ohikoa ez den gelara joatea motibagarriagoa izan da, gauza ezberdinak zituelako eta espazioa zabalagoa zelako.

Lehenengo espazioari dagokionez, gunea zabal bat da eta bertan irakaslearen eskura mahai bat eta ordenagailu bat daude, bigarren espazioak hurrengat mahaiak eta aulkiak, irakaslearen mahai ordenagailuarekin eta piano bat ditu.

Laburbilduz, irakasleak jardueretan teoriak aipatzen dituen 5 blokeak jorratu ditu honako hauek hain zuzen ere: musika hizkuntza, entzumen musikala, mugimendua eta dantza, ahotsa eta kantua eta azkenik, instrumentu musikalak.

7. ONDORIOAK

Hasteko, gradu amaierako lan hau aurrera eramatea egoera berezi bat izan dela esan beharra daukat. Izan ere, gaur egun ez da erraza Haur Hezkuntzako ikasgela batean musika saioak aurkitzea. Horregatik, egoeraz baliatuta lan hau aurrera eramatea erabaki zen.

Bestalde, musika saioak aurrera eramaten zituen irakaslea, Lehen Hezkuntzan espezialista zen baina hala eta guztiz ere Haur Hezkuntzarako jarduera egokiak planteatzen eta jorratzen zituen jardueren analisisian ikusi dugun moduan.

Behin, musika hezkuntza haurren garapenerako funtsezkoa dela aztertuta, Haur Hezkuntzako etapan musikak haurrei gauza askotarako lagundu ahal diela ohartu naiz, besteak beste, beraien nortasuna eraikitzeo edota pentsamendua garatzeko horregatik, haurrei landu nahi denaren arabera material eta baliabide ezberdinak eskaini behar zaizkie. Oso garrantzitsua da beti ere, material eta baliabide horiek haurren eskura egotea beraien hauekin esperimendu dezaten. Hau da, materialak esploratzeko eta esperimendatzeko aukera ematea.

Hezkuntza hori egokia izateko hainbat kontu hartu behar dira kontuan: Hasteko irakaslearen papera oso garrantzitsua da, izan ere, irakaslearen paperak asko baldintzatuko du haurren garapena. Horregatik, garrantzitsua da irakasleak haurrei entzutea, beraien eskaerei kasu egitea, horrek haurren jarreran eta parte hartzean eragina izango duelako eta nola ez, haurrek motibatzea.

Lantzen diren edukiak eta jarduerak, haurren adinerako egokiak izan behar dira. Izan ere, ez baldin badaude haurren adinera egokituak, haurren garapenerako oztopo bat izan daiteke eta haurrek musikaren aurrean jarrera negatiboa izatea ekar lezake.

Bestalde, musika hezkuntza egoki bat jasotzeko, ezinbestekoa da musikaren oinarriko bost atalak lantzea. Hau da, hizkuntza musikala, mugimendua, ahotsa eta kantua, entzumena eta musika tresnak. Atal hauek lantzea beharrezkoak dira haurrek hezkuntza egoki bat jaso dezan eta honekin batera curriculumak aipatzen dituen hainbat helburu eta eduki landu dezan. Hala nola, adierazpena, dramatizazioa, elkarren arteko errespetua, elkarlana, parte-hartzea edota nortasunaren eraikuntza.

Azkenik, metodologia aldetik esan, klasean egindako jarduera guztietatik haurrei gehien gustatu zaienak jolasarekin bideratutako ariketak izan direla. Beraz, jolasak Haur Hezkuntzan duen garrantzia ere kontuan hartu behar den gauza bat da.

8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Hasteko, behaketa lan hau musika saioen behaketa bat izan arren, gehien bat irakaslearen paperean eta landutako edukietan zentratu garela esan beharra dago. Izan ere, behaketa hau egiten denbora gutxi eman dugu horregatik, hobekuntza moduan irakasleaz gain, haurren erantzunetan zentratzeko urte osoko behaketa bat edo ziklo bateko behaketa bat egitea proposatzen da. Horrela behaketa sakonago bat egin ahalko litzateke.

Musika saioak Haur Hezkuntzatik jasotzeak, Lehen Hezkuntzan haurren musika gaitasunaren garapena nolakoa den behatzea laguntzen digu izan ere, aurretik barneratutako gaitasun horiek lagungarriak izango dira gauza berriak ikasterako orduan. Horretaz gain, aurretik hezkuntza hori jaso ez duten hurrekin konparatzeko aukera ematen digu egoera honek eta horrekin batera haurraren zein ondorio izan dezakeen ikusteko.

Irakaslearen papera behatuz, alde batetik esan beharra dago, irakasleen formakuntza funtsezkoa izan behar dela. Oso garrantzitsua da irakasleak metodologia aktibo bat erabiltzea, ikaslea, hau da, haurra protagonista izan dadin eta ahalik eta gehien parte hartu dezan. Bestalde, irakasleak haurren ezagutzak zeintzuk diren ondo jakin behar ditu bertatik abiatu eta ezagutza berriak egoki transmititzeko hurrei. Irakaslea bitartekaria izan behar da, ezagutza eta haurren artean.

Bestalde, etorkizunera begira gradu amaierako lan honetan ikusitako ezaugarriak kontuan hartuko dira (haurren aurrezagutzak kontuan hartzea, jarduera motibagarriak proposatzea eta jarduera horiek jolasean oinarrituta egotea) ezaugarri hauekin musikaren eraginak funtzionatzen duelako.

Eta horrekin batera, eduki kontzeptualaz gain baita arlo afektiboa lantzea izan ere, Haur Hezkuntzan oinarrizko elementu bat da.

Beste hizkuntzekin batera Haur Hezkuntzako curriculumeko komunikazio arloa osatzen duenez, bai ulermena eta bai adierazpena landu beharko dira.

Azkenik, gaur egun musika hezkuntzari dagokionez ez dago material eta baliabide askorik gai lantzeko, horregatik musikaren arloan oraindik lan asko dago egiteko Haur Hezkuntzan.

8. ERREFERENTZIAK

Akoschky, J., Alsina, P., Díaz, M., Giraldez, A. (2008). *La música en la escuela infantil (0-6)*. Editorial GRAÓ.

Barbarroja, M.J. (2009). La música en Educación Infantil. *Revista digital. Innovación y experiencias educativas*. Berreskuratuta:
https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_14/JANET_BARBARROJA_1.pdf

Barrena, N. (2016-2018). Secuenciación de contenidos de la música en Educación Infantil: El currículo del País Vasco. *Aula virtual: contenidos y elementos* (orr. 31). Madrid: Mc Graw Education.

Barrena, N. (2018). *Musika adierazpenaren garapena I ikasgaia*. 2018-2019 ikasturteko Haur Hezkuntza Graduko 1. mailako apunteak, editatu gabeak. Gasteiz: Hezkuntza Fakultatea.

Bernal, J. (2005). Apuntes para una nueva educación musical en la escuela. *Facultad de Ciencias de la Educación*. Berreskuratuta:
<https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/2111285.pdf>

Cañete, M.M. (2010). La Educación musical en la etapa Infantil. *Innovación y experiencias educativas*.

Cremades, R., García-Gil, D., Lizaso, B., Morales, Á., Del Olmo, M.J., Román, M., Susaeta, I eta Toboso, S. (2016). *Desarrollo de la Expresión musical en Educación Infantil*. Madrid: Paraninfo.

Fubini, E. (2004). *Estética de la música*. Madrid: A. Machado Libros, S.A.

García de la Torre, T. (2017). *Musika adierazpenaren garapena II ikasgaia*. 2017-2018 ikasturteko Haur Hezkuntza Graduko 2. mailako apunteak, editatu gabeak. Gasteiz: Hezkuntza Fakultatea.

García de la Torre, T. (2018). *Musika hizkuntza ikasgaia*. 2018-2019 ikasturteko Haur Hezkuntza Graduko 4. mailako apunteak, editatu gabeak. Gasteiz: Hezkuntza Fakultatea.

García Molina, M.T. (2014). *La importancia de la música para el desarrollo integral en la etapa Infantil*. (Gradu amaierako lana). Cadiz. Universidad de Cadiz.

Gluschankof, C., Perez-Moreno, J. *La música en Educación Infantil: Investigación y práctica*. Madrid: Dairea Ediciones

Hernández, R., Fernández, C., Baptista, M.P. (2014). *Metodología de la investigación*. Mexico D.F: McGraw-hill / interamericana editores, S.A. de C.V.

Malaguzzi, L. (2001). *La educación infantil en Reggio Emilia*. Barcelona: Rosa Sensat-Octaedro.

Ochoa de Eribe, M.P. (1999). Elkarrizketa, *Hik Hasi*, 35, 15-20 orr.

237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako Curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila, EHAA, 9, 142 (237).

Hormigos, J. eta Cabello, A. (2004). La construcción de la identidad juvenil a través de la música. *Revista española de sociología*, (4),259- 270. Berreskuratuta: <http://www.fes-sociologia.com/files/res/4/11.pdf>

Jauregi, A., Mujika, K., Fullaondo, M. (2004). *Pentagrama-enea*. Andoain: Sortzen ikasbatuaz.

Martí, J.M. (2016). *Aprendizaje Musical Para Niños*. Barcelona: Robin Book.

Oriol de Alarcon, N.M. (1992). El profesor especialista en Educación Musical en la Educación Primaria: formación y acceso. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 13.

Pascual, P (2006). *Didáctica de la música para educación infantil*. Didáctica de la música. PEARSON EDUCACIÓN, S. A., Madrid

Rousseau, J. (2007). *Diccionario de música*. Madrid: Akal.

Sarget, M^a.A. (2003). La música en la educación infantil: Estrategias-cognitivo musicales. *Revista de la Facultad de Ciencias de la Educación de Albacete*. N^o 18. Berrekuratuta : <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1032322>

Wuytack, J. eta Boal-Palheiros, G. (1995). *Audición musical activa (libro del profesor)* Porto: Associação Wuytack de Pedagogía Musical.

Zabala, X. (2009). *Txirulaz*. Donostia: Xangorin S.L.

9. ERANSKINAK

1. BEHAKETA: 5 URTEKO HAURREN MUSIKAKO KLASEAK.

- **Nolakoa da ikasgela?**

Musikako klasea bi ikasgela ezberdinetan eman da.

Musika gela (1) , espazio handiko gela bat da eta bertan irakaslearentzat mahai bat eta aulki bat daude. Beste espazio guztia haurarentzat libre dago.

Musika gela (2), tamainaz beste gelaren berdina da, baina bertan irakaslearen mahai eta aulkiaz gain, ikasleentzat ere badaude. Horretaz gain, piano bat ere badago bertan.

- **Zer egiten da?**

Irakasleak proposatutako jarduerak eramaten dira aurrera:

- Erritmoa lantzeko.
- Intentsitatea lantzeko.
- Melodia lantzeko.
- Aurreko gaiak lantzeko jolasak.
- ...

- **Zein material erabiltzen du irakasleak?**

Irakasleak hainbat material erabiltzen ditu, ipuinak irakurtzeko hainbat liburu, erritmoa, intentsitatea, melodia lantzeko ariketak TUTI DA CAPO ikasliburua erabiltzen du.

Bestalde, haurrekin jarduerak aurrera eramateko musika tresnak ere erabiltzen ditu: Danborra, pianoa, triangelua, kutxa txinatarra.

- **Zein da irakaslearen papera?**

Klasea ematerako orduan irakaslearen papera gidatzaile eta bideratzaile paperena da. Berak azalpenak eman eta haurrei hori egitera bideratzen die.

2. IKASGELAREN BEHAKETA:

- **Zenbat ikasle dira gela? 19**
 - Neskak? 10
 - Mutilak? 9

- **Errutinak:**
 - Gelara heldu, guztiak elkartu eta hitz-egin.
 - Zirkulazio librea.
 - Proiektua.
 - Patiora.
 - Bazkaltzera.
 - Arratsaldean, guztiok elkartu eta hitz-egin.
 - Zirkulazio librea.
 - Proiektua.
 - Patiora.

- **Espazioa:**
 - Eguraldi ona dagoenean? Eskolako patioan egoten dira. Espazioa zabala da. Behealdean, ziburuak daude eta goialdean, kirol ezberdinetan jolasteko espazioa dago.
 - Euria egiten duenean? Sotoan egoten dira eguraldi txarra eginez gero. Bertan, espazio handi bat dago, pilotalekua, eszenatoki bat, pin-poneko mahaiak daudenak eta gero gela txiki batzuk daude mahai jolasetan aritzeko.

3. IRAKASLEAREN PROFILA

- **SEXUA:** Mutila

- **ADINA:** 30 urte inguru.

- **ORDUTEGIA:**

Hasieran klaseak, Haur Hezkuntzan bakarrik ematen zituen musikako irakasle “fijoa” zenak, ordutegi murrizketa zuelako. Orduan irakasle batek Lehen Hezkuntzan eta besteak Haur Hezkuntzan ematen zituzten klaseak.

Hasiera, Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko geletan ematen zituen klaseak, astean behin eta bakoitza 45 minutukoa. Baina gero Lehen Hezkuntzan ere eman behar izan ditu klaseak, beste irakaslea bajan egon den bitartean. Beraz, hasieran lanaldiaren partziala zuen baina orain osoa.

- **ORDUTEGI KOPURUA:** Haur Hezkuntzan: 270 ordu

4. BEHAKETA TAULAK

DATA			2018-11-6	2018-11-13	2018-11-20	2018-11-27	2018-12-05
IRAUPENA			45 minutu	45 minutu	45 minutu	45 minutu	45 minutu
ESPAZIOA			Musika gelan	Musika gelan	Musika gelan	Musika gela (2) (Gela aldaketa)	Musika gela (2)
MATERIALA	Musika tresnak:		Ez	Bai (Danborra eta triangelua)	Bai (Danborra)	Bai (Danborra eta pianoa)	Bai (Danborra, pianoa, klabeak eta kutxa txinatarra)
	Besterik:		Ipuina	Ipuina	Ipuina	Ipuina	Ipuina eta ikus- entzunezkoa
JARDUERAREN DESKRIBAPENA	Metodologia: Tartekatze moduak:		Talde osoa batera	Hasieran talde osoan eta gero bi taldetan banatuta.	Talde osoa batera	Talde oso batera	Talde oso batera
	Parte hartzea:		Haurren gehiengoak: Haur batzuk kasurik egin gabe beraien artean jolasten.	Haurren gehiengoak: Haur batzuk kasurik egin gabe beraien artean jolasten.	Haurren gehiengoak: Haur batzuk kasurik egin gabe beraien artean jolasten.	Haurren gehiengoak: Haur batzuk kasurik egin gabe beraien artean jolasten.	Haurren gehiengoak: Haur batzuk kasurik egin gabe beraien artean jolasten.

	Jarduera bereziak:		Txiki-txikia abestia abestu eta dantzatu			Pianoarekin nota ezberdinak ezagutu.	Ikus-entzunezkoa: Mickey Mouse, Donal Duck, Goofy The Band Concert.
LANDUTAKO GAIA	Erritmoa	BAI	Txaloen bitartez erritmoa landu. (Beltza, kortxea eta isilunea)	Danborrarekin erritmo ezberdinak landu. (Beltza eta kortxea)	Txaloak, hankekin lurrean eta eskuekin belaunetan joaz erritmo ezberdinak landu.	Txaloekin eta eskuekin hanketan joaz erritmo ezberdinak landu. Danborra erabiliz (beltza eta kortxeak bereiztu).	Txaloekin eta eskuekin besoak joaz eta klabea, danborra eta kutxa txinatarra joaz (Beltza eta kortxea)
		EZ					
	Melodia	BAI	Nota ezberdinen segidak egin: (DO-RE-MI)	Nota ezberdinen segidak egin: (DO-RE-SOL-SO edo SOL-SOL-MI-MI-RE-RE-MI)	Nota ezberdinen segidak egin: (SOL-RE-MI-RE, MI-RE-SOL-DO, SOL-SOL-z-SOL-MI-MI-z)	Nota ezberdinen segidak egin: (SOL-SOL-MI-MI-DO)	Nota ezberdinen segidak egin: (MI-MI-SOL-DO-DO-SOL)
		EZ					
					Melodia bat intentsitate ezberdinekin abestu:	Intentsitate ezberdinak lantzeko ariketa:	

	Intentsitatea	BAI		(Forte-Piano) TU-TU-TU-TU LO-LO-LO NU-NU-NU-NU RO-RO-RO-RO	(Piano-Forte) DANBORRA ERABILITA: Piano jotzean: Lau hankatan ibili. Forte jotzean: Oñez ibili.		(Piano-Forte) TU-TU-TU-TI- TU-TI-TU/LA- LA-LA-LA-LA-LA- LA
		EZ	X			X	
	Akonpainamendua	BAI		Danborrak erritmoa lantzen lagundu.		Danborrak erritmoa lantzen lagundu.	Danborrak eta kutxa txinatarrak erritmoa lantzeko lagundu.
		EZ	X		X		
	Akonpainamendu Armonikoa	BAI					
		EZ	X	X	X	X	X
	Parte hartzen du jardueretan?	BAI	Bai, momentu batzuetan arreta galdu arren.	Haur guztiak danborra eta triangelua jo.	Bai, jarduera batzuetan beste batzuetan baino gehiago baina orokorrean bai.	Orokorrean bai baina, oso erraz galtzen dute arreta.	Bai, jarduera batzuetan beste batzuetan baino gehiago

AURRERAPENAK BALORATZEKO PARAMETROAK							baina orokorrean bai.
		EZ					
	Landutako kontzeptuak barneratu ditu?		- Hurrengo egunean istorioaz akordatu. -Nota ezberdinak diferentziatu.	- Erritmo aldaketak egitea kostatu.	-Hurrengo egunean istorioaz akordatu. -Nota ezberdinak diferentziatu.	- Forte eta piano kontzeptuez akordatu. - Beltzak eta kortxeak bereiztu.	-Nota ezberdinak bereiztea kostatu. - Erritmo ezberdinen arteko aldaketak kostatu.
BALORAZIOA			-Klasearen hasieran hurrei arreta mantentzea asko kostatu zitzairen. -Dantzatzen eta abesten gustura aritu ziren.	- Txakurra eta ardien jolasa oso ondo egon da, hurrei asko gustatu zaie eta horrek beraien arreta berenganatzen lagundu du.	- Danborrarekin ariketak egitea asko gustatu zaie. - Batzuei erritmo aldaketak egitea kostatu.	- Ipuina irudiez lagunduta egoteak, haurren arreta berenganatzen lagundu. - Batzuei kortxea eta beltzak bereizte eta erritmo aldaketak kostatu. - Pianoarekin jotako notak bereiztea kostatu.	-Ipuina irudiez lagunduta egoteak, haurren arreta berenganatzen lagundu. -

DATA			2018-12-12	2018-12-19	2019-01-08	2019-01-16
IRAUPENA			45 minutu	45 minutu	45 minutu	45 minutu
ESPAZIOA			Musika gela (2)	Musika gela (2)	Musika gela (1)	Musika gela (2)
MATERIALA	Musika tresnak:		Bai (Danborra)	Bai (Danborra eta triangelua)	Bai (Danborra)	Bai (Danborra eta pianoa)
	Besterik:		-Ipuina -Giza gorputza: Eskuak eta hankak -Ikus-entzunezkoa.	-Ipuina -Giza gorputza: Eskuak eta hankak	-Ipuina -Giza gorputza: Eskuak eta hankak	-Ipuina -Giza gorputza: Eskuak eta hankak
			Talde osoa batera	Talde osoa batera (Taldea txikiagoa, haur asko gaixorik zeudelako)	Talde osoa batera	Talde osoa batera

JARDUERAREN DESKRIBAPENA	Metodologia: Tartekatze moduak:					
	Parte hartzea:		Haurren gehiengoak: Haur batzuk kasurik egin gabe beraien artean jolasten.	Parte hartze zabala	Haurren gehiengoak: Haur batzuk kasurik egin gabe beraien artean jolasten.	Haurren gehiengoak: Haur batzuk kasurik egin gabe beraien artean jolasten.
	Jarduera bereziak:		Aho bizi eta belarri prest abestia dantzatu eta abestu (Haurrek eskatu)	Aulkien jolasa: (kooperatiboa) <i>-Haurrek eskatuta AC/DC taldearen musikarekin jolastu.</i>		Pantailan irudiez osatutako partitura bat jarri eta haurrek bertan jartzen duena irakurri. (Beltza eta kortxea)
LANDUTAKO GAIA	Erritmoa	BAI	Txaloek joaz eta eskuekin hanketan joaz. (Beltza eta kortxea)	-Txaloek joaz eta eskuekin hanketan joaz. (Beltza eta kortxea) -Triangeluak joaz erritmo ezberdinak landu.	Txaloak eta eskuekin hankan joaz. Beltza eta kortxea.	Txaloak eta putz eginez, erritmoa ezberdinak landu. (Beltza eta kortxea)
		EZ				
	Melodia	BAI	Nota ezberdinen segidak egin: MI-MI- SOL-DO-DO-SOL...	Nota ezberdinen segidak egin: SOL-SOL- SOL-MI-MI-DO...	Nota ezberdinen segidak egin: SOL-RE- MI-RE...	Nota ezberdinen segidak egin: (Pianoaren laguntzaz) DO-DO-RE-RE-SOL-SOL- MI
		EZ				

JARDUERAREN DESKRIBAPENA	Metodologia: Tartekatze moduak:					
	Parte hartzea:		Haurren gehiengoak: Haur batzuk kasurik egin gabe beraien artean jolasten.	Parte hartze zabala	Haurren gehiengoak: Haur batzuk kasurik egin gabe beraien artean jolasten.	Haurren gehiengoak: Haur batzuk kasurik egin gabe beraien artean jolasten.
	Jarduera bereziak:		Aho bizi eta belarri prest abestia dantzatu eta abestu (Haurrek eskatu)	Aulkien jolasa: (kooperatiboa) <i>-Haurrek eskatuta AC/DC taldearen musikarekin jolastu.</i>		Pantailan irudiez osatutako partitura bat jarri eta haurrek bertan jartzen duena irakurri. (Beltza eta kortxea)
LANDUTAKO GAIA	Erritmoa	BAI	Txaloek joaz eta eskuekin hanketan joaz. (Beltza eta kortxea)	-Txaloek joaz eta eskuekin hanketan joaz. (Beltza eta kortxea) -Triangeluak joaz erritmo ezberdinak landu.	Txaloak eta eskuekin hankan joaz. Beltza eta kortxea.	Txaloak eta putz eginez, erritmoa ezberdinak landu. (Beltza eta kortxea)
		EZ				
	Melodia	BAI	Nota ezberdinen segidak egin: MI-MI- SOL-DO-DO-SOL...	Nota ezberdinen segidak egin: SOL-SOL- SOL-MI-MI-DO...	Nota ezberdinen segidak egin: SOL-RE- MI-RE...	Nota ezberdinen segidak egin: (Pianoaren laguntzaz) DO-DO-RE-RE-SOL-SOL- MI
		EZ				

		EZ				
	Landutako kontzeptuak barneratu ditu?	BAI	Forte/Piano kontzeptuak bereiztu.	-Beltza eta kortxea kontzeptuak barneratu. -Erritmoa nahiko ondo barneratu. - Intentsitatea (forte/piano) oso ondo bereiztu.	-Intentsitatea (forte/piano) oso ondo bereiztu. (Batzuei kostatu). -Beltza eta kortxearekin nahastu.	Beltza eta kortxearen kontzeptuekin hobetu. TA/TI-Tik lagundu horretan.
BALORAZIOA			Ikus-entzunezkoak jartzeak haurrei lagundu die.	Ikasle gutxiago egoteak asko lagundu. Haurrek kontzeptuak eta jarduerak errazago berenganatu.	Klasearen hasieran haurrei arreta mantentzea asko kostatu zitzaien.	Haurren arreta berenganatzea zaila.
OHARRAK			Notak bereiztea kostatu.	Forte/Piano kontzeptuak bereiztu.	Beltza eta kortxea barneratuta. Zuria beltzarekin nahastu.	Intentsitateak bereiztea kostatu. Erritmo ezberdinetara ibiltzea kostatu.